

Usurbilgo Udala

2016KO URRIAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Irene Garcia Palacios
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Kontratazio teknikaria: Olatz de Miguel Arnaiz

Ezin-etorria adierazi du: Xuban Zubiria Elexpe

Arratsaldeko 18:08etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko urriaren 25ean, arratsaldeko 18:08etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- 2016KO IRAILAREN 27KO OHIKO PLENOKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2016ko irailaren 27ko ohiko plenoko akta gehiengoz onartu dute. Alaitz Aizpurua abstenitu egin da ez zelako aipatutako bilkuran egon.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO IRAILAREN 19TIK URRIAREN 14RA (2016/0889-2016/0968).

Alkatetzak 2016ko irailaren 19tik urriaren 14ra bitartean (2016/0889– 2016/0968) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2016/0995 DEKRETUA BERRESTEA: ERRAUSTEGIAREN INGURUMEN BAIMEN BATERATUA AUZIBIDEAN ERREKURRITZEA.

Alkateak adierazi du dekretu honen bidez Erraustegiaren Ingurumen Baimen Bateratua auzibidean errekurritu nahi dela.

Gaineratu du, bere garaian, Usurbilgo Udalak gora jotzeko bi errekurtsio aurkeztu zizkiola Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak emandako Ingurumen Baimen Bateratuari, baina ezezkoa eman zitzaie. Errekurtsio horietan 10 arrazoi zehazten zirela esan du eta emandako erantzunean beraien ustez ez zitzaie behar bezala erantzuten, ondorioz, aurrera egitea eta auzibidean errekurritzea planteatzen dutela aditzera eman du.

Dekretu honetan, halaber, abokatu eta prokuradorea izendatzen direla adierazi du.


Idazkariak gaineratu du dekretu honen ostean zuzenketa bat egon dela. Izan ere gai hau Euskal Herriko Epaimahai Gorenean errekurritu behar denez, Donostiako prokuradorea baino Bilboko prokuradorea izendatu behar baita. Beraz, bigarren dekretuan Donostiako prokuradorearen alde egindako izendapena bertan behera utzi da eta Bilboko prokuradorea izendatu da.

Josune Urkolak kontratuari buruz galdetu du.

Idazkariak erantzun dio 18.000 eurotik beherako kontratuetan faktura aurkeztuta nahikoa dela.

Alkateak adierazi du ulertu dutela badagoela nahikoa arrazoi tekniko eta juridiko errekurtsio hau sartzeko, azken batean, ingurumenari eta osasunari begira inportantea dela deritzote auzi honekin aurrera egitea.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea abokatuaren txosten juridikorik badagoen.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio ikusten dutena dela Ingurumen Baimen Bateratuaren tramitazioan eta mamian badaudela nahiko hutsegite nabariak. Dirudienez bere garaian eman zen Ingurumen Baimen Bateratuaren prorroga moduko bat egin da eta uste dutena da bere garaian egin zen proiektuaren eta gaur egun egin nahi denaren artean aldaketa benetan mamitsu eta esanguratsuak daudela, ondorioz, gaur egungo proiektuak Ingurumen Baimen Bateratu berri bat egitea eskatuko lukeela uste dute.

Lehen esan bezala, hasierako errekurtsioan 10 arrazoi aurkeztu ziren eta orain horietan sakonduko dela adierazi du.

Batzarkideek, 2016ko urriaren 20ko 2016/0995 dekretua gehiengoz berretsi dute.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

4.- 2017 URTERAKO USURBILGO HERRI BARRUKO TAXIEN TARIFA BERRIAK ONARTZEA.

Jone Urdanpilletak gaiari buruzko azalpenak eman ditu. Adierazi du urtero bezala Eusko Jaurlaritzak herri barruko taxiaren tarifa berriak onartzea eta jakinaraztea eskatzen duela. Gure kasuan erregimen bereziko gunea dugula esan du eta gune horretan sei herririk hartzen dutela erabakia azaldu du eta halaber bi taxi elkarte daudela bertan. Bi elkarte horiek aurten ere igoerarik ez aplikatzea proposatu dutela esan du, beraz, 2016ko tarifak mantentzea erabaki dela.


Azpimarratu du azken igoera 2013an onartu zela eta 2014tik 2017ra, momentuz, ez dela igoerarik izan taxi tarifetan.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2016-0466

Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxiaren legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu



Usurbilgo Udala

zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, (Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua).

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerrri horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.


Ikusirik

2015eko abenduaren 22an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2016. urterako USURBILGO udalak aurkeztu zituen Auto Taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2016 urterako onarturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2016ko HIRI BARRUKO TARIFA					
TARIFA 1 *			TARIFA 2 **		
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

* Lanegunetan 07:00ik 22:00 arte.



Usurbilgo Udala

**** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai *larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.***

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerrriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan, **2017. urterako USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA aurkeztu dute Gipuzkoako taxilarien bi elkarteek.**

2017. urterako Taxilarien elkarteetatik aurkeztu diren proposamenak hauek dira:

“1.- G.TAXI, GIPIIZKOAKO TAXISTEN ELKARTEAREN TARIFAK 2017 URTERAKO

G.TAXI, Gipuzkoako Taxisten Elkartearen izenean Gregorio Alias Jerico jaunak hau dio:

- 2017ko ekitaldirako, ordezkatzan dituen profesionalak, beraien jarduera profesionaletarako indarreko tarifen gehikuntzarik ez eskatzea erabaki dutela.

- 2017an zehar 2016ko tarifak mantendu nahian, aurretik aipatutako taxi-profesionalen helburuak honako hauek direla:

. Azken urteetan taxi zerbitzuaren eskaera areagotu eta sektorearen errentagarritasuna larriki kaltetu duena ongi ulertzea.


. Taxi tarifak eta kontsumoaren gainerako prezioak lerrokatzea, azken hamabi hilabeteetan zehar, urteroko aldaketako balioak zero zenbakiaren hurbil egon baitira.

2.- AGITAX TAXIAREN GIPIIZKOAKO ELKARTEAREN TARIFAK 2017 URTERAKO

AGITAX Taxiaren Gipuzkoako Elkartearen ordezkari Emilio Fernandez Hidalgo jaunak azterketa ekonomikoa aurkeztu du eta datorren urteko tarifei dagokienez hau dio:

- Erabili behar den barruko elkartutako tarifa aurreko urtekoaren berdina da, %0 igoera egin ondoren (aipatutako azterketa ekonomikoa oinarrituta), tarifaren taula 2017 urterako 2016ko taulako prezio eta baldintza berdinekin mantentzen da.”

2016ko irailaren 30ean Buruntzaldeako Taxiaren Eskualdeko Batzordea ospatu zen bi elkarteek proposatutako tarifak aztertzeko. Bertaratuak: alde batetik Lasarte-Oria, Urnieta (bere bozka utzi du), Usurbil eta Astigarragako ordezkariak, Andoain eta Hernaniko taxi titularrak, guzti hauek bokal bezala jardunez eta bestetik, G.Taxi Gipuzkoako Taxilarien elkarteko eta AGITAX Gipuzkoako Taxilarien elkarteko ordezkariak, etorle bezala.



Usurbilgo Udala

Bi proposamenak entzun eta aztertu ondoren, AHO BATEZ erabaki zen 2017 urterako aurreko urteko prezioak mantentzea. Honako tarifa eta baldintzak onartu dira 2017 urterako:

2017ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

***Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.**

****Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.**

Kontutan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalarik dagokio tarifak onartzea.

Gauzak horrela, Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2016eko urriaren 13an egindako bilkuran, aho batez, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo herri barruko garraiorako 2017. urterako proposatzen diren aipatutako auto-taxi tarifak onartzea.

BIGARREN: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onspena eman dezan.

HIRUGARREN: Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXi, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunari bidaltzea 2016ko azaroak 14a baino lehen.



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

5.- 2017KO ZERGA-ORDENANTZAK BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak 2017ko zerga-ordenantzen aldaketari buruzko azalpenak eman ditu.

Azken urteotan zein testuingurutan gauden denok dakigula adierazi du, ze egoera ekonomiko, murrizketa eta gutxien dutenak gero eta gutxiago izatearen egoerak eta, era berean, Udalak ere egoera larriago batean aurkitzen direla esan du. Gero eta zerbitzu gehiago eman dira, baina aurrekontuak direnak dira, ez dira handiagotzen.

Ordenantza fiskala, aurrekontuekin batera, guzti hori kudeatzeko eta behar horiei erantzun bat emateko tresna bat dela dio.

Azken hiru urtetan bezala, orokorrean ordenantza fiskaletan igoerarik ez egitea proposatzen da, nahiz eta aldaketa batzuk badauden eta horiek azalduko dituen.

Erreferentziazat Gipuzkoako abuztutik abuzturako KPI-a hartzen da. Aurten %0,2ko igoera izan duenez, zergak orokorrean bere horretan uztea proposatzen dute.

Jarraian, aldaketak izan dituztenak azaldu ditu. Batetik, IBI-an emango den aldaketa eta, bestetik, hondakinen tasan emango dena. Bi kasuetan, kanpotik eragindako aldaketak direla zehaztu du.

IBI-aren kasuan, zerga hau balio katastralaren gainean aplikatzen dena da eta balio katastralaren azken errebisioa 2001ean egin zen. Errebisio hori Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du eta hamabost urte errebisatu gabe egon ondoren, aurten egin duela adierazi du. Aurten etxebizitzan eta industriaguneen balio katastrala errebisatu dela esan du.

Usurbilgo kasuan, Udalak erabili duen irizpidea izan da balio katastral horren aldaketa neutralizatzea edo bere horretan uztea, beraz, udalak ez du baliatuko balio katastral horren errebisioa diru gehiago jasotzeko. Honek esan nahi duena da balio katastrala igoetzea proposatzen denean, tipoa jaitsi egingo dela eta balio katastrala jaitea proposatzen denean tipoa igo egingo dela. Horrela, udalak jasoko duen dirua iazko berdina izango da.

Gaineratu du Foru Aldundia gaur bertan hasi dela bidaltzen balio katastralaren datua jabe guztiei, azarotik aurrera udalean ere agiria jaso ahal izango da eta abenduan



Usurbilgo Udala

aukera egongo da desadostasun edo zalantzak argitzeko bai Foru Aldundian bai Udalean.

Hondakinen tasari dagokionez, inguruko herriein alderatuta Usurbilgo hondakin tasa merkeenetakoa da.

2016an GHK-k, San Marko Mankomunitateak eta bertan erabakiak hartzen dituzten alderdiek erraustegia justifikatzeko edo erraustegiak sortzen duen zorrari aurre egiteko, bai errefusaren bai bio-hondakinen tratamenduaren prezioa izugarri igo dute. Errefusaren tratamenduaren kostua %20 igo da, 144 eurotik 173 eurotara, eta bio-hondakinen kasuan %92ko igoera izan dute, 72 eurotik 138 eurotara.

Honek ekartzen duena da hondakinen zerbitzua udaletan ohikoa baldin bada ere defizitarioa izatea, eta defizit hori %48 batean handitzea. Honen aurrean, Udala behartuta dagoela dio honi aurre egitera. Udal honek azken urteotan aurrera eraman duen filosofia edo ildoei jarraituz, proposatzen dena da defizit hau nolabait gure tasetara moldatzea eta gehien sortzen duenak gehien ordaintzea. Proposatzen dutena da etxeetako eta komertzioetako zati finkoaren %20ko igoera eta zati aldakorraren %30eko igoera, komertzio eta poligonoetan banatzen diren edukiontziak kobratzea eta industriaguneetan zati finkoetan %5a igotzea. Honek praktikan ekarriko duena da, adibidez, etxebizitza batek hiruhilabetekoan zati finkoa 16,94 euro ordaintzetik 20,32 euro ordaintzera pasatzea, hau da, urtean hamabostero errefusa ateratzen duen etxebizitza batek 84 euro ordaintzetik 99 euro ordaintzera pasako da.

Modu honetan, GHK-k eta San Marko Mankomunitateak sortu duten igoera horri aurre egin ahal izango dio Udal honek eta baita defizit horri ere.


Amaitzeko, hilerriko kasua aipatu du. Maiatzean irailean indarrean sartzeko tasa berri batzuk onartu ziren eta horietan zuzenketa bat egitea proposatzen da. Hilerriz zaharrean eskumenak zituzten herritar edo famili dezente zeuden eta bertatik ateratzen diren gorpuzkinak hilerriz berriant sartzeko ez da kobratuko, betiere udalaren erabakia bada.

Josune Urkolak hobarrietan aipatzen den PGS zer den galdetu du.

Salario Mínimo Interprofesional dela erantzun zaio.

Batzarkideek, Ogasun batzorde informatzailearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Ogasun Batzordeak, 2016ko urriaren 19ko ez-ohiko bileran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren (EH Bildu) aldeko botoekin, eta Josune Urkola (EAJ) eta Fermin Orue Echevarriaren (PSE) abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENA. - 2017ko Zerga-Ordenantzak behin-behingo onartzea, ondoko aldaketekin:

1.- Ondasun Higieinei buruzko Zergaren Kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala.

6. artikulua: EZABATU.

ERANSKINA

Hiri Ondasun Higiezin gainera Zergari aplikagarri zaion karga tasa:

	%
Industria eta zerbitzu erabilerako tipoa	0,5521
Beste erabileretarako (etxebizitza, etab)	0,1828

2.- Udalerriko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren exakzioarako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala.

7. artikulua: EZABATU.

8. artikulua: EZABATU.

4.- Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailea.

11. artikulua: ZUZENKETA:

a) %95ko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan energia aurrezteko lortzen bada. Beren helburu bakarra hura izanik edota birgaitze obra handiago baten parte badira, kontzeptu horren atal diren partidei aplikatuz. Existitzen diren eraikinen kasuan, araudiak ezarritako parametroak betetzea ezinezkoa denean ere aplikagarri izango da, baldin eta modu eraginkorrean energia aurrezteko lortzen bada. Eraikuntza, instalazio eta obrek honako helburu hauetakoren batekin bat etorri beharko dute:

_Eraikinen ingurutzalearen energia eragingarritasuna lortzeko egiten diren lanak. Fatxadak eta estalkiak isolatzea (kanpoko arotz lanak barne).

_Eraikuntza berrien nahiz osoko birgaitzeen kasuan, Eragingortasun Energetikoari dagokionean A edo B mailako ziurtagiria lortzen duten eraikinei: Hobaria behin obra amaitu eta eragingortasun energetikoaren A edo B maila ziurtatzen denean exekutatu da.



Usurbilgo Udala

_Eraikuntza berrien nahiz osoko birgaitzeen kasuan, Passivhaus edota Minergie estandarrak betetzea lortzen duten eskuhartzeetan. Hobaria behin obra amaitu eta eraikitakoak hala betetzen duela ziurtatzen den unean exekutatu da.

_Instalazioak energetikoki eragingarriagoak bihurtzeko egindako lanak (berokuntza, hozketa, etxeko ur beroa, elektrizitatea).

_Energia berriztagarriak edo alternatiboak instalatzea (eguzki energia edo fotoboltaikoa, eolikoa, biomasa, e.a).

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	Karga tasa (%)
Nekazal jarduerari loturiko eraikuntzak	2
Nekazal gunetan etxebizitzaren eraikuntzak	4
Orokorra (besteak)	5

6.- Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduerak burutzeagatik Tasak arautzen dituen Ordenantza.

A. UR HORNIDURA ZERBITZUA

Hobarien taula zuzendu:

Etxean bizi diren pertsonak	HOBARIA		
	%90	%75	%50
1	< 1,10 PGS	1,10 PGStik 1,25 PGSra	1,26 PGStik 1,50 PGSra
2	< 1,44 PGS	1,44 PGStik 1,63 PGSra	1,64 PGStik 1,96 PGSra
3	< 1,57 PGS	1,57 PGStik 1,79 PGSra	1,80 PGStik 2,15 PGSra
4 edo +	< 1,69 PGS	1,69 PGStik 1,93 PGSra	1,94 PGStik 2,31 PGSra


B. HONDAKIN BILKETA ETA EZABAKETA

B) ZABOR BILKETA EZABAKETA

1. Zerbitzu orokorra

Tarifak bi zati izango ditu: Finkoa eta aldakorra.

1.1.- Hondakin bilketaren tarifa finkoa.




Usurbilgo Udala

Erabiltzaile mota	Tarifa € / hiruhileko
1. Etxebizitzak:	
Hiriguneko etxebizitzak	20,32
Landa eremuko etxebizitzak	17,60
2. Merkatal establezimenduak:	
Sortzaile txikiak	20,32
Sortzaile txikiak landa eremuan	17,60
Beste establezimenduak:	
OBZ (Oinarrizko bilketa zerbitzua) – organikoa	37,72
OBZ – organikoa landa eremuan	37,72
OBZ	100,60
OBZ landa eremuan	65,52
3. Poligonoetako Industriak eta merkatal guneak:	
Industria eta merkatal guneak – organikoa	126,30
Industria eta merkatal guneak	403,91
Industria sortzaile txikiak	22,00
4. Beste zerbitzuak:	
Poligonoetako egur zerbitzua	55,45

Azalpenak: Merkataritzako Oinarrizko Bilketa Zerbitzua atez ate egiten den bilketa da, udalak definitutako frakzioak jasoz.

1.2.- Tarifa aldakorra, sortutako errefusa kopuruaren arabera eta erabiltzaile motaren arabera. Ondoko taulak jasotzen duena da:

Errefusa unitatearen kostua



Usurbilgo Udala

<i>Ontziaren Bolumena (litro)</i>	<i>€/Unitatea</i>	<i>€/unitatea < 0,1 kg/l komertzioak</i>	<i>Nahastua bada</i>
0 L (etxebizitza)	0,88	-	2,52
40 L	12,51	2,51	37,90
50 L	12,94	2,58	39,34
120 L	12,35	2,49	38,18
240 L	16,63	3,33	51,72
360 L	20,83	4,18	65,26
1000 L	43,29	8,67	137,49

Hondakin sanitarioak eta pardelak.

Egunero biltzen diren hondakin sanitario eta pardelak dohainik jasoko dira eta ez da errefusa unitate bezala zenbatuko.

Dentsitate gutxiko errefusa.


Komertzioen errefusa dentsitatea 0,1Kg/l baino urriagoa bada errefusaren tarifak ezberdina izango dira. Interesatuak eskatuta Udalak errefusaren dentsitatea zehaztuko du eta emaitzaren arabera kobratuko zaio errefusa unitatea. Kasu hauetan, errefusa zatikiak homogenea izan beharko du eta Udalak eskumena izango du nahi duenean dentsitatea ziurtatzeko.

Sortutako errefusa kopuruaren balioespena.

Hondakin bilketa zerbitzuak erabiltzaile bakoitzak sortutako errefusa unitateak zenbatuko ditu. tarifa ordaintzeko epealdi batean, erabiltzaile batek benetan sortutako hondakin-kopurua zenbatzerik ez badago, kopuru hori aurreko epealdian zenbatutakoa dela balioetsiko da, eta horren arabera kalkulatu da bere tarifaren zati aldakorra.

Aurreko epealdian ere sortutako errefusaren bolumena ezin bazen erregistratu, ondoko taulan agertzen diren hondakin nahastutako bolumenak balioetsiko dira dagokion tarifa orokorra ezartzeko:

1.2.- Edukiontzia



Usurbilgo Udala

Edukiontzi bolumena (litro)	Kostua (€)
40 l	30
50 l	40
120 l	50
240 l	55
360 l	70
1000 l	210

1.3-Sortutako errefusa kopuruaren balioespena.

Erabiltzailea	Asteko balioetsitako nahastutako errefusa unitate bolumena: litro
Etxebizitza (15 m ³ ur kontsumoa baino gutxiagoa dutenean irakurketa epealdian)	0
Etxebizitza (15 m ³ ur kontsumoa baino gehiago dutenean irakurketa epealdian)	40
Merkatal establezimendua	120
Industria eta merkatal gunek	360


Hurrengo fakturazio-aldian normaltasunean neurtzen bada zergadunak sortutako hondakin-kopurua, aurreko aldian balioetsitako fakturazioarekin konpentsatuko da, hala gehiegizko nola gutxienezko kasuan.

Sortutako hondakin kopuruaren balioespenari ere ekin ahal izango zaio, Hondakin-Udal Zerbitzuan jasotako datuak ikusirik, bertan irudikatzen diren kopurua, erabiltzaileak izan ohi duen hondakinen sorrera-erregimenarekin bat ez datozenean.

Etxe, merkatal establezimendu, industria edo merkatal gunek batek justifikatzen badu epealdi horretan ez duela errefusarik sortu, ez zaio balioetsitako errefusa unitaterik ordain araziko.

Hobarien taula ZUZENDU:

Etxean bizi diren pertsonak	HOBARIA		
	%90	%75	%50
1	< 1,10 PGS	1,10 PGStik 1,25 PGSra	1,26 PGStik 1,50 PGSra



Usurbilgo Udala

2	< 1,44 PGS	1,44 PGStik 1,63 PGSra	1,64 PGStik 1,96 PGSra
3	< 1,57 PGS	1,57 PGStik 1,79 PGSra	1,80 PGStik 2,15 PGSra
4 edo +	< 1,69 PGS	1,69 PGStik 1,93 PGSra	1,94 PGStik 2,31 PGSra

C. ESTOLDERIA ZERBITZUA

Hobarien taula ZUZENDU:

Etxean bizi diren pertsonak	HOBARIA		
	%90	%75	%50
1	< 1,10 PGS	1,10 PGStik 1,25 PGSra	1,26 PGStik 1,50 PGSra
2	< 1,44 PGS	1,44 PGStik 1,63 PGSra	1,64 PGStik 1,96 PGSra
3	< 1,57 PGS	1,57 PGStik 1,79 PGSra	1,80 PGStik 2,15 PGSra
4 edo +	< 1,69 PGS	1,69 PGStik 1,93 PGSra	1,94 PGStik 2,31 PGSra

E. HILETA ZERBITZUAK

GEHITU:

Lurretik edo hobitik ateratzeak, Udalaren beharraren arabera egiten bada, ez du tasarik izango.

Lurretik edo hobitik ateratzeak, eskaera partikularren ondorioz egiten bada, dagokion tasa aplikatuko da.

Emakidan erreskateen ondorioz hilerri berrian esleitutako panteoitan ehorzketak, ez du tasarik izango.

Hobarien taula EZABATU.

G2. HIRIGINTZA ESPEDIENTEAK


GEHITU (bukaeran):

Kanpoko txostenik edota ziurtagiririk behar izanez gero, haien guztiko kostua kobratuko da.

Araudiak eskatzen dituen argitalpen eta itzulpen kostuak interesatuaren kontura joango dira, baita.

8.- Zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak burutzeagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza.

B. UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK



Usurbilgo Udala

A) OIARDO KIROLDEGIA

SARRERAK

19 urte edo gehiago	6,00 €
18 urte edo gutxiago	3,70 €
Dutxa	2,00 €

ABONOAK (I-XII)

Familiarra	240 €
19 urte edo gehiago	158 €
18 urtez edo gutxiago, pentsionista, jubilatuta edo 25 urtez beherako ikaslea	99 €

Abonua pertsonala da, eta behin ordainduta, baja emateak ez du suposatuko ordaindutakoa itzuliko denik. Abonoak urtero automatikoki luzatuko dira, abonatuak baja eskatzen ez duen bitartean. Bajak, abenduaren 20a aurretik eskatu beharko dira.

Urtarriletik abendura bitarteko abonua (100 €-tik gorakoa) bi zatitan ordaindu ahal izango da, erdia eta erdia, beti ere, ordainketa helbideratzen bada. Lehenengo ordainketa urtarrilean burutuko da eta bigarrena uztailean.

Ordainketak, txartel bidez edo Kiroldegiak horretarako dituen kontu korranteetan egin beharko dira. Ez da onartuko 10€tik gorako ordainketarik eskudirutan.

Oiarde kiroldegian abonua egiteak Andoainen, Lasarte-Orian eta Urnietako instalakuntzak erabiltzeko eskubidea ematen du. Salbuespena: Lasarte-Oria, Urnietako eta Andoainen erroldatutakoak, azken hauek norbera bere herrian atera behar du abonua. Hala eta guztiz ere, lehen aipatutako herritarrek Usurbilen abonatu gero, Oiarde kiroldegia soilik erabili ahal izango du.

EPEA	FAMILIARRA	19 urte edo gehiago	18 urte edo gutxiago, pentsionista, jub. eta 25 urtez beherako ikasleak
urt. – abe., ots. - abe.	240,00 €	158,00 €	99,00 €
mar. - abe.	224,00 €	147,00 €	92,00 €
api. – abe.	204,00 €	134,00 €	84,00 €
mai. – abe.	184,00 €	121,00 €	76,00 €
eka. – abe.	164,00 €	108,00 €	68,00 €
urt. – eka., uzt. - abe.	156,00 €	102,00 €	64,00 €
ots. – eka., abu. – abe.	136,00 €	89,00 €	56,00 €
mar. – eka., ira. – abe.	116,00 €	76,00 €	48,00 €
api. – eka., urr. - abe.	96,00 €	63,00 €	40,00 €



Usurbilgo Udala

mai. – eka., aza. - abe.	76,00 €	50,00 €	31,00 €
eka. – eka., abe. – abe. edo hilabete naturala	56,00 €	37,00 €	23,00 €

Oiardoko erreserbak

Squash (60´)	5,20 €
Squash-ekoo 10 saioko bonua	41,60 €
Sauna	3,70 €
Saunako 10 saioko bonua	29,60 €
Pista kirolanitza (60´)	21,25 €
Argia	4,30€
Pista kirolanitza (60´) 1/3	8,20 €
Argia	1,60 €
Pista kirolanitzean gomak jarri eta kentzea	300,00 €
Kanpoko zelaia	15,85 €
Argia	4,15 €
Gela erabilanitza	8,20€
Tatamia	10,20€

Tasa hauek instalazio bakoitza pentsatutako kirol ekintza egiteko ordu beteko alokairu tasa da.

Alokatzeko, Oiardo kiroldegia oniritzia behar da.

Alokairua duten erabiltzaileak (abonatuak ez direnak) ez dute sarrera ordaindu beharrik. Dutzatu nahi izanez gero, dutxa sarrera ordaindu beharko dute.


Erabiltzaileek ondorengo eremuak doan erabili ahal izango dituzte libre badaude: squasha, Oiardoko kanpoko futbol zelaia eta pista. Argia behar izanez gero, argiari dagokion tarifa ordaindu beharko dute.

Kirol instalazioa ekintza berezia burutzeko erabili nahi izanez gero (ez ohiko ekintza), Udalean eskaera egin beharko da (gutxienez 10 eguneko epearekin).

Tarifa hauek ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Usurbilgoak diren irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak eta interes publikokoak diren ekitaldiak antolatu nahi duen usurbildar norbanakoak. Beti ere antolatutako ekitaldiak Udalaren interesekoak diren irizpideekin bat badatoz.

Oiardoko Zerbitzuak

Giltza puskatzea, galtzea	5,20 €
Karneta puskatzea, galtzea	3,50 €
Txanoa	2,00 €



Usurbilgo Udala

Ikastaroak (hilabeteko)

Ikastaroa	Abonodunak	Abonu gabeak
Mantentze gimnastika, Zumba eta aerobik astean 2 egunez	15,00€	30,00€
Pilates, Jumping, ur-ludoteka 5-8 urte astean 2 egunez	31,20€	62,40€
Spinning, tonifikazioa, igeriketa eskola eta igeriketa hobekuntza astean 2 egunez	25,00€	50,00€
3.adinako gimnastika astean 2 egunez	6,80 €	13,60 €
Igeri hastapena 4 lanegunetan, hilabetekoa	62,45€	124,90€
Uretara moldatzea, astean 4 egunez, hilabetekoa 5-8 urte	75,00€	150,00€
Ur-ludoteka astean 2 egunez 3-4 urte	41,65€	83,30€
Haurtxoak eta uretara moldatzea 3-4 urte, astean 2 egunez	46,80€	93,60€
Yoga, astean behin (ordu eta erdi)	18,75€	37,50€

Ikastaroen hilabeteko saio kopuruaren arabera tarifa proportzionala izango da.

Ikastaroetan izena emateak ordaintzea suposatzen du; beste inolako erreserbarik ez da onartuko. Izena emateak, ikasturte guztirako erreserba egitea derrigortzen du.

Ikastaroetan izena ematea pertsonala da eta baja emateak ez du esan nahi dirua itzuliko denik.

Ikastaro luzeetan, 100 €tik gorako ikastaroak bi zatitan ordaindu ahal izango dira, bata izena emate momentuan kobratuko da (%60), eta bigarren zatia urtarilean (%40), beti ere, ordainketa helbideratzen bada.

Ikastaroak dirauen bitartean kirol-instalazioetako abonuan baja ematen duten ikastaro kideek, abonodun ez direnen tarifari dagokion zati proportzionala ordainduko dute eta alderantziz.


Irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak Udal instalazioetan ikastaroren bat antolatu nahi izanez gero, kobratu ahal izango zaio: sarrera, alokairua eta monitore orduak. Horretarako, kasuan kasuko erabakiak hartuko ditu kirol zerbitzuak.

B) UDALAREN BESTE KIROL INSTALAZIOAK

HARANE FUTBOL ZELAIA

Ondoren gehitzen den laukietan adierazten diren prezioak €/ orduko izango dira.

Abonodunak



Usurbilgo Udala

Zelai osoa (60´)	48,00€
Argiarekin	60,25€
Zelai erdia (60´)	26,45€
Argiarekin	32,50€

PILOTALEKUAK

PILOTALEKUAK (60´)	13,30€
Argiarentzako fitxa	3,90€

100 erabilpen baino gehiagoko alokairuei %30eko beherapena aplikatuko zaie.

Tasa hauek instalazio bakoitza pentsatutako kirol ekintza egiteko ordu beteko alokairu tasa da.

Alokatzeko, Oiardo kiroldegiaren oniritzia beharko da.

Kirol instalazioa ekintza berezia burutzeko erabili nahi izanez gero (ez ohiko ekintza), Udalean eskaera egin beharko da (gutxienez 10 eguneko epearekin).

Tarifa hauek ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Usurbilgoak diren irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak eta interes publikokoak diren ekitaldiak antolatu nahi duen usurbildar norbanakoak. Beti ere antolatutako ekitaldiak Udalaren interesekoak diren irizpideekin bat badatoz.

ABONOAN HOBARIAK:


Kiroldegi tasaren hobaria izango dute, diru-sarrera hauek baino gutxiago dituztenek:

Etxean bizi diren pertsonak	HOBARIA		
	%90	%75	%50
1	< 1,10 PGS	1,10 PGStik 1,25 PGSra	1,26 PGStik 1,50 PGSra
2	< 1,44 PGS	1,44 PGStik 1,63 PGSra	1,64 PGStik 1,96 PGSra
3	< 1,57 PGS	1,57 PGStik 1,79 PGSra	1,80 PGStik 2,15 PGSra
4 edo +	< 1,69 PGS	1,69 PGStik 1,93 PGSra	1,94 PGStik 2,31 PGSra

Hobariak eskatzerakoan aurkeztu beharko den dokumentazioa eranskinean adierazten dena izango da.

Hobarien eskaera Udaletxean egin behar da.

D. EGUNEKO ZENTROAREN ZERBITZUA



Usurbilgo Udala

1. PUNTUA EGOKITZEA:

1.- Mendekotasuna duten erabiltzaileak:

Baldintza ekonomikoak urtero eguneratuko dira 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

G. UDAL MATERIALAREN ALOKAIURUA

	Alokairua €/erabilerako	Birjarpena €
Aulkiak	0,30	10,00
Mahaiak	3,00	50,00

Tarifa hauek ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Usurbilgoak diren irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak eta interes publikokoak diren ekitaldiak antolatu nahi duen usurbildar norbanakoak. Beti ere antolatutako ekitaldiak Udalaren interesekoak diren irizpideekin bat badatoz.

I. UDAJOLAS UDALEKU IREKIAK

TARIFAK EGUNERATU:

Kuota arrunta	83
Familia ugaria	67

*Doan: Familiaren egoera kontuan izanda, Gizarte Ongizate Sailak hala adierazten duenean.


10.- ZUZENBIDE PUBLIKOKO UDAL ZERGEN ETA BESTE DIRU-SARREREN KUDEAKETAREN ETA BILKETAREN GAINEKO ORDENANTZA NAGUSIA.

27. artikulua: Egutegi fiskala.

ZERGA KONTZEPTUA

ORDAIN EPEA

- Emakida administratiboak (atxega jauregia, udal baratzak...): Urtarrilaren 2tik 31ra.



Usurbilgo Udala

- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa – aurreko urteko 4. hiruilekoa: Urtarrilaren 2tik 31ra.
- Ura ,estolderia eta hondakinak – aurreko urteko 4. hiruilekoa: Otsailak 1etik martxoak 15era.
- Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga: Martxoak 1etik apirilak 17ra.
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 1. hiruilekoa: Apirilak 3tik maiatzak 2ra.
- Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiruilekoa: Maiatzak 2etik ekainak 15ra.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga: Maiatzak 16tik uztailak 3ra.
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 2. hiruilekoa: Uztailak 3tik abuztuak 1era
- Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiruilekoa: Abuztuak 1etik irailak 15era.
- Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa): Irailak 1etik urriak 2ra .
- Ekonomi jarduera gaineko zerga: Urriak 2tik azaroak 10era.
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 3. hiruilekoa: Urriak 2tik 31ra.
- Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 3. hiruilekoa: Azaroak 1etik abenduak 15era.
- Bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutzazain automatikoak...) : Azaroaren 1etik 30era.

Helbideratutako agiriak borondatezko epearen azken egunean kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean.

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkeztu ez deneko kasuan, ordurarte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

LAUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren



Usurbilgo Udala

aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

6.- USURBILGO UDALEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOA (2016-2019) ONARTZEA.

Alkateak adierazi du irizpen hau Pertsonal Batzordeak diktaminatuta datorrela eta batzordean emandako azalpen berak emango dituela modu labur batean.

Lan-hitzarmen proposamen hau langileen ordezkari baten eta udal gobernu taldearen ordezkari baten arteko hilabeteetako bileren emaitza dela adierazi du.

Abiapuntutzat aurretik zegoen lan-hitzarmena hartu dute eta nahi izan dutena izan da lan-hitzarmen horri eustea eta espirtua mantentzea.

Egin diren aldaketa gehienak langileen ordezkari egindako eskaerei erantzuteko egin direla esan du. Azken emaitza bi aldeentzako ona izan dela iruditzen zaie, lan baldintza duinak ekartzen dituelako eta langileen lan eskubideak ondo errespetatu eta zaintzen dituelako eta, bestetik, azpimarratu du bidean zehar prozesuan elkarlan giro bat egon dela udalgintzari lotutako jarrera egoki batekin bai langileen aldetik bai politikoen aldetik.

Aldaketen artean, azpimarratzekoa dela dio soldataren gaia. Azken erabakia izan dela dio lau urteko aurreikuspenak egitea baino hobea dela urtez urteko errebisioak egitea, ikusten baitute egoera ekonomiko zalantzati honetan ez dela oso egokia lau urteko aurreikuspenak egitea. 2016ko igoera zehaztu dutela esan du, jada ezarrita dagoena eta lan hitzarmen hau onartuko balitz urtarrilaren 1etik atzera eraginez aplikatuko dena. Bestalde, gutxieneko bat ere adostu dela esan du, hau da, legeak onartuko balu behintzat KPI-aren igoera aplikatzea positiboa denean, aldiz, negatiboa balitz ez aplikatzea.

Onartu den beste baldintza esanguratsua baje ingurukoa da, hau da, langileak %100 kobratuko duela lehenengo 10 hilabetetan, hortik aurrera berriz %90a.



Usurbilgo Udala

Oro har lan hitzarmen hau ez dela aurrekoa baino lege urratzaileagoa aipatu du. Gaur egun Madriletik datozen legeekin eta ezarpenekin oso zorrotz zaintzen dela zenbait legeren aplikazioa eta horrek administrazioan lanean ari garenoi baldintza itogarri batzuk betetzera behartzen gaituela aditzera eman du. Aurreko lan hitzarmenak bazituela lege urraketak edo legeak Madrilen jasotzen ez dituen artikulua batzuk eta horiei eutsi egin zaiela esan du, baina azpimarratu du oraingo lan hitzarmen honek ez duela lege urraketa berririk ekartzen.

Alaitz Aizpuruak gehitu du Usurbilgo lan hitzarmenak ibilbide luze bat duela eta langileen eskubideez gain espirtu bat ere jasotzen duela, hain zuzen ere, zerbitzu publiko eta langile publikoen defentsa. Halaber, kontutan hartu beharrekoa dela dio azken lau edo sei urteetan defentsa hori egitea nola zaildu den.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du pozten dela adostasuna lortu izanaz, bai sindikatuek beraien artean eta baita hauek udalarekin ere. Lau urterako ziurtasuna lortzea langileentzako oso garrantzitsua dela azpimarratu du eta, ondorioz, baita herritarrentzat ere hauek zerbitzu hobea jasoko baitute.

Batzarkideek, Pertsonal batzorde informatzailearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Aurrekariak:

2012ko uztailaren 19an, Usurbilgo Udaleko 2012-2015 dokumentua sinatu zen Udal Korporazio eta langileen ordezkarien artean.

Lan-hitzarmen berriaren negoziazio faseko bilkurak 2016ko urtarrilaren 20an hasi eta irailaren 13an amaitu ziren. Bilkura hauen ondoren Usurbilgo Udaleko langileei aplikagarri izango zaizkien baldintzak arautzen dituen lan-hitzarmenaren testua adostu dute Udal Korporazioaren kide eta langileen ordezkari guztiek.

2016ko irailaren 30ean langileen batzarra egin eta langileek lan-hitzarmenaren testuari aldeko botoa eman zioten.

Proposamena:

Gaia 2016ko urriaren 19an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpuru, Jone Urdanpilleta, Fermin Orue-Echevarria
- Abstentzioa: Josune Urkola



Usurbilgo Udala

Lan-hitzarmen honetako artikulua batzuei buruz udaleko zerbitzu juridikoa osatzen duten pertsonal eta kontratazio teknikariak eta udal idazkariak elkarlanean burututako txosten juridikoa eta udal kontu-hartzailearen txostena jaso dira.

Beraz, hori dena ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udal gobernuaren ordezkariak zein langileen ordezkariak eta atal sindikalek adosturiko **Usurbilgo Udaleko Langileen Lan-Baldintzak Arautzen Duten Akordioa** onartzea.

BIGARRENA: Akordio honen berri langileen ordezkariari, atal sindikalei, kontu-hartzaileari eta pertsonalga sailari ematea.

HIRUGARRENA: Akordio hau Udaleko Iragarri Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

7.- GALDERA-ESKAERAK.

Josune Urkolak 2017ko Aurrekontuekin batera 2016ko aurrelikidazioa ematea eskatu dio kontu-hartzaileari.

Kontu-hartzaileak erantzun dio horrela egingo dela eta legez ere horrela izan behar duela.

Alaitz Aizpurua adierazi du Hazienda Batzordea zubiaren ondorengo astean egingo dela 2017ko Aurrekontuak aurkezteko, ondoren beste batzorde bat egingo da proposamenak jasotzeko eta hirugarren batean, abendu hasieran, onartuko lirarteke.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:50ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.